

## Erregearen bufoia

Bazen behin, urrutiko herrixka batean, \_\_\_\_0\_\_\_\_ , errege bat zaldi zahar-zahar baten jabea zena. Hainbat borrokatan ibiliak ziren elkarrekin, baina ordurako zaldi gaixoa erreumak jota zegoen eta \_\_\_\_1\_\_\_\_ . Erregeak asko maite zuen zaldi zaharra eta azken gozoa eskaini nahi zion: aurrerantzean, hil arte, zaldiak nahi zuen beste janari eta ohe biguna izango zuen.

Erregeak morroi bati eman zion zaldiaren ardura eta \_\_\_\_2\_\_\_\_ ; baina agur esan baino lehen hurrengo esan zion:

- " \_\_\_\_3\_\_\_\_ ".

Zaldiak beste urte pare bat iraun zuen, eta azkenean hil egin zen, zaharraren zaharrez. Morroia beldur zegoen, erregeari berri txarra eman behar ziolako. Buru makur zegoen, zer egin ez zekiela. Une hartan gorteko bufoia pasatu zen ukuiluaren aurretik.

- "Aupa mutila!"

- "Nire lekuan egongo bazina, ez zenuke hain umore onik izango. Erregeak burua moztuko dio zaldiaren heriotza iragartzen dionari. Eta zaldia goizean hil da. Ni naiz arduraduna eta \_\_\_\_4\_\_\_\_!"

- "Zaude lasai! Neuk emango diot berria erregeari."

Esan eta egin. Bufoiak zaldi bat hartu eta urruneko lurretarantz abiatu zen. Hiru egun igaro ondoren, erregearen aurrean agertu zen.

- "Zer duzu bufoi, zertara etorri zara honaino?"

- "Berori ikustera etorri naiz, jauna?" Ba al daki berorrek azken berria?"

- "Ez. Esadazu zuk".

\_\_\_\_5\_\_\_\_ . Bi urte zeramatzan bere gaztelutik urrun eta irrikan zegoen jakiteko gazteluan zer gertatzen zen.

- "Berorren zaldia etzanda dago eta ez dirudi burua jasotzeko batere asmorik duenik."

- "Zer ba? Ez du asmorik burua jasotzeko... Ohh! Hil egin da!"

- "Hara! Berorrek esan du. Eta....badaki zein den erregearen agindua.....".

Erregea pentsakor geratu zen eta ...azkenean... \_\_\_\_6\_\_\_\_ , izan ere, huraxe zen bere buruarentzat erabakirik onena.

(<http://www.teatro-testuak.com/ipuinak>. Testu moldatua)

### Lotu esaldi bakoitza dagokion hutsunearekin. Esaldi bi sobera daude.

- |   |                                                                       |
|---|-----------------------------------------------------------------------|
| 0 | a) bere burua moztu beharrean bere hitza jatea erabaki zuen           |
| 1 | b) erregea pozik zegoen, zer entzungo zain zegoen                     |
| 2 | c) gizona triste zegoen berri txarra esan ziotelako                   |
| 3 | d) inork ezagutzen ez duen herrixka batean                            |
| 4 | e) herren ibiltzen zen                                                |
| 5 | f) nik hil dudanez, neuk ez diot esan nahi                            |
| 6 | g) urruneko gerrara joan zen beste lur batzuk konkistatzera           |
|   | h) zaldia hil dela neuk esan beharko diodanez, hil egingo nau!        |
|   | i) zaldiaren heriotzaren berri ematera datorrenari burua moztuko diot |